

## Genero-ikuspegia

IKE Kooperatiba irabazi-asmorik gabeko entitate juridikoa da eta ez du langilerik bere kontura. Hori horrela, ez dago behartuta berdintasun plan bat ezartzera (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoa, eta hurrengo aldaketak).

Nolanahi ere, plan bat izatera behartuta ez egon arren, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren aldeko barne-politikak landu eta sustatuko ditu, nahiz eta horiek plan baten forma hartu ez.

### **Organo erabakitzaileak:**

- **Batzarra:** 76 bazkideek osatzen dute IKE Kooperatiba. Horietatik emakumezkoak ez dira %40a iristen. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da etxeko rolen banaketak baduela eragina horretan, fakturen titular gehienak gizonak baitira oraindik. Salbuespenak salbuespen, eta aldaketak ematen ari diren arren, rol horiek oso barneratuta daude gure gizartean. Hortaz, badugu zer aldatua.
- **Kontseilu Errektorea:** 8 kidek osatzen dute kooperatibako Kontseilu Errektorea, 4 emakume eta 4 gizon dira. Beraz, kopuru orekatua dugu. Esan beharra dago, egun, lehendakari karguan emakume bat ari dela eta idazkari karguan,

## Perspectiva de género

La Cooperativa IKE es una entidad jurídica sin ánimo de lucro y sin personal a su cargo. Por ello, no está obligada a establecer un plan de igualdad (Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, y posteriores modificaciones).

En todo caso, aunque no esté obligada a contar con un plan, elaborará y promoverá políticas internas a favor de la igualdad real entre hombres y mujeres, aunque éstas no adopten la forma de un plan.

### **Órganos decisorios:**

- **Asamblea:** IKE Koop. S. está formada por 76 personas socias. De ellas, las mujeres no llegan al 40%. En cualquier caso, hay que tener en cuenta que el reparto de roles en el hogar influye en ello, ya que la mayoría de los titulares de las facturas siguen siendo hombres. Salvo excepciones, y a pesar de los cambios que se están produciendo, estos roles están muy interiorizados en nuestra sociedad. Tenemos mucho que hacer por delante.
- **Consejo Rector:** El Consejo Rector de la cooperativa está compuesto por 8 miembros, 4 mujeres y 4 hombres. Por lo tanto, existe paridad de género de los miembros. Una mujer ejerce el cargo de presidenta y un hombre el de secretario,

berriz, gizon bat; gainerako kideak bokal gisa ari dira.

#### **Funtzionamendua:**

IKE Koop. S. eskubide eta aukera berdintasunarekin konprometituta dagoen kooperatiba da, eta berdintasunean, askatasunean eta pertsonen arteko errespetuan oinarritutako elkarlana sustatzen du eta sustatuko du. Horrenbestez, ez du inolako jazarpenik onartuko, eta jokabide zein jarrera iraingarriak, diskriminatzaileak edota abusuzkoak prebenitzeko, antzemateko, tratatzeko, jarraitzeko eta zuzentzeko neurriak hartuko ditu.

Horretarako, Kontseilu Errektorea osatzen duten zortzi kideetatik hiru kide izendatuko dira (bi emakumezko eta gizonezko bat) **Berdintasun Batzordea** osatzeko, eta kooperatibaren jardunean generoaren analisisia eta jarraipena egitea izango da euren eginkizuna. Kooperatibako eremu guztietan generoaren ikuspegia bermatzea izango da helburua. Batzarraren hurrengo bilkurara eramango da proposamena, bazkideen onarpena jaso dezan eta, horrela balitz, barne araudian jasoko litzateke osaera.

Aplikazio eremua ez da soilik kooperatibako kideei mugatuko; aitzitik, bere inguruan egiten diren eta egingo diren jardueretatik sortutako egoera guztiei aplikatuko zaie. Hortaz, bazkideei ez ezik, zerbitzu-hornitzaileei eta harremanak izan ditzakeen gainerako eragile guztiei ere eragingo die.

mientras que el resto de los miembros ejercen como vocales.

#### **Funcionamiento:**

IKE Koop. S. es una cooperativa comprometida con la igualdad de derechos y oportunidades, que promueve y fomentará la colaboración basada en la igualdad, la libertad y el respeto entre las personas. Por tanto, no tolerará ningún tipo de acoso y adoptará medidas de prevención, detección, tratamiento, seguimiento y corrección de conductas y comportamientos vejatorios, discriminatorios y/o abusivos.

Para ello, se nombrará a tres miembros de los ocho que componen el Consejo Rector (dos mujeres y un hombre) para constituir la **Comisión de Igualdad**, cuya función será realizar el análisis y seguimiento del género en la actividad de la cooperativa. El objetivo será garantizar la perspectiva de género en todos los ámbitos de la cooperativa. La propuesta se planteará en la próxima sesión de la asamblea, para que reciba la aprobación de las personas socias y, en su caso, su composición se recogerá en el reglamento interno.

El ámbito de aplicación no se circunscribirá únicamente a las socias y socios cooperativistas, sino que se aplicará a todas las situaciones derivadas de las actividades que se desarrollen y se vayan a desarrollar en su entorno. Por tanto, afectará no sólo a los socios y socias, sino también a las empresas o personas proveedoras de servicios y a cualquiera con quien pueda relacionarse.

Pobrezia energetikoari dagokionez, identifikatu nahi ditugu gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden familiak eta egoera zaugarrian dauden kolektiboak, Igeldoko Herri Kontseiluarekin edo laster egingo den kontsultaren ondoren eratuko litzatekeen Toki Entitate Txikiko ordezkariekin elkarlanean. Izan ere, ikerketen arabera, emakume gehiago dira kalteberatasun-egoeran daudenak. Beraz, pertsona horiei laguntzeko neurri zehatzak hartuko ditugu.

Aipatutako neurri horiek, besteak beste, hauek dira:

- Ez dute ordaindu beharko komunitateko bazkide izateko nahitaezko kuota.
- Zaugarritasun mailaren arabera, ezarritako ehuneko batean murriztuko zaie inbertsio-kuota.
- Energia-komunitatearen laguntzak jasoko dituzte fakturak ordaintzeko.
- Etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko proiektuak planteatuko dira.
- ...

Komunitate Energetikoa **komunikazio inklusiboa** sustatuko du:

Komunikazioa eta hizkuntza iruditeria kolektiboak eta errealitateak sortzeko tresna eraginkorrak dira. Hizkuntzak deskribatzen eta etiketatzen du, ikusezin bihurtzen eta hierarkizatzen du, eta uneko egoera islatzeaz gain, egoera mantentzen edo aldatzen laguntzen du.

Horregatik, genero ikuspegiak blaitutako

En cuanto a la pobreza energética, queremos identificar a las familias en riesgo de exclusión social y a los colectivos en situación de vulnerabilidad, en colaboración con Herri Kontseilua de Igeldo o con las personas representantes de la Entidad Local Menor que se pueda constituir tras la próxima consulta. De hecho, según los estudios, son más las mujeres que se encuentran en situación de vulnerabilidad. Por lo cual, tomaremos medidas concretas para ayudar a estas personas.

Estas medidas son, entre otras, las siguientes:

- Estarán exentas del pago de la cuota obligatoria de pertenencia a la comunidad.
- En función del grado de vulnerabilidad, se les reducirá la cuota de inversión en uno de los porcentajes establecidos al efecto.
- Recibirán ayudas de la comunidad energética para pagar las facturas.
- Se plantearán proyectos de mejora de la eficiencia energética en las viviendas.
- ...

La Comunidad Energética fomentará la **comunicación inclusiva**:

La comunicación y el lenguaje son instrumentos eficaces para crear imaginarios colectivos y realidades. El lenguaje describe y etiqueta, invisibiliza y jerarquiza, además de reflejar la situación actual, contribuyendo a mantenerla o modificarla.

Por ello, realizaremos declaraciones y

adierazpen eta komunikazioak egingo ditugu. Horrela izan dadin hizkera inklusibo eta ez-sexista erabiliko dugu, gizonak soilik ikusarazten ez dituen eta, aldi berean, erreferente femeninoak sortzeko eta nabarmentzeko eta estereotipoak apurtzeko balioko duena.

Alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Pertsonaren generoa ziurtzat ez jotzea, estereotipo sexistak ez errepikatzea, genero hautu guztiak errespetatzea, emakumeak gizonen mendeko gisa ez tratatzea eta trans pertsonetikiko sentsibilitatea demostratzea, besteak beste.

Hizkuntza inklusiboa erabiltzea, generikoak erabiliz. Hala, maskulinoa generiko gisa ez erabiltzea eta hitz sexuatugabeak erabiltzea. Adibide gisa, generiko bezala pertsona hitza erabiliko dugu ahozko zein idatzizko komunikazioetan, hitz horrekin kontzeptu asko modu ez sexista, ez androzentrikoan adieraz daitezkeelako.

Erabilera eta jarrera desagokietan ez erortzeko aurrerapausoak ematen ari gara, baina asko dugu egiteko oraindik, eta hobetzen jarraitu nahi dugu.

Garrantzia du emakumeak ikusaraztea, bereziki, ikusezinoak diren eremuetan, eta energia berriztagarrien eremua horietako bat da. Horregatik, parekidetasuna bultzatuko dugu, eta ahal dela, emakumeak ahaldunduko ditugu presentzia handiagoa izan dezaten gure komunitatean. Pertsona sentsibilizatuak eta konprometituak garelako.

comunicaciones impregnadas de la perspectiva de género. Para que así sea utilizaremos un lenguaje inclusivo y no sexista, que no visibilice sólo a los hombres, sino que al mismo tiempo sirva para crear y destacar referentes femeninos y romper estereotipos.

Se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

No dar por supuesto el género de la persona, no reproducir estereotipos sexistas, respetar todas las opciones de género, no tratar a las mujeres como dependientes de los hombres y demostrar sensibilidad hacia las personas trans, entre otros.

Utilizar un lenguaje inclusivo utilizando genéricos. Así, no utilizar el masculino como genérico y utilizar palabras no sexuadas. A modo de ejemplo, utilizaremos como genérico la palabra persona tanto en las comunicaciones orales como escritas, ya que con esa palabra pueden expresarse muchos conceptos de forma no sexista, no androcéntrica.

Estamos dando pasos para no caer en usos y actitudes inadecuadas, pero nos queda mucho por hacer todavía y queremos seguir mejorando.

Es importante dar visibilidad a las mujeres, especialmente en ámbitos en los que son más invisibles, y el de las energías renovables es uno de ellos. Por ello, impulsaremos la paridad y, en la medida de lo posible, empoderaremos a las mujeres para que tengan mayor presencia en nuestra comunidad. Porque somos personas sensibilizadas y comprometidas.